

Sanpedroak • Igeldo

Desafioz beteriko jaiak

Herri kirolak eta zaldi demak izango dira, besteak beste, San Pedro jaietako gaurko ekitaldirik garrantzitsuenak

Nagore Etxeberria | IGELDO

Sanpedroak ate-joka ari dira Igeldon. Joan den igandean antolatutako ekitaldiek sanpedroak hurbil zirela iragarri zuten, zalantzarik gabe.

Ekainaren 23an, besteak beste, krosa egin zen, eta korrikariak franko sufritu behar izan zuten, zazpi kilometro egin behar izan baitzituzten aldapan gora, Ondarretatik abiatu eta Mendizorrotzeraino. Ez da, ez, ibilbide samurra! Hala ere, jende ugari animatu zen XXII. herri igoera egitera.

Sanpedroak ez ziren atzo arte hasi, baina indartsu iritsi ziren. Goizeko 11:00etan kirola eginenez ekin bazieten ere, bertsotan eta dantzari amaitu zuten eguna, atzo herri afaria izan baitzuten igeldoarrek Anjel Mari Peñagarikano eta Xabier Legarreta bertsolariekin; gaua amaitzeko, dantzaldia izan zen Muxu Truk taldearekin.

Gaurkoa, berriz, apustuak egiteko egun aproposa izango da, herri kirolak eta zaldi demak izango baitira nagusi. Eguerdiko 12:00etan, esku-pilota partidak jokatu dituzte. Baez anaiak Aranburu eta Goikoetxea izango dituzte aurrez aurre. Nor baino nor prestatuago irtengo da kantxarra, eta lehia bizia izango dela ziurta daiteke.


Partidua amaitu eta berehala, aizkolarien txanda helduko da. Oraingo honetan, Joxe Etxebeste eta Anjel Altuna bikoteak Jose Mari Olasagasti eta Joseba Etxebeste izango ditu aurkari. Saltsa eta emozio handiko goizari amaiera bikaina emateko, Goenatxo harri-jasotzaileen erakustaldi bikainaz gozatzeko aukera izango dute bertara biltzen direnek.

Zaldi demak

Kirioak lasaitzeko tripa bete ostean, arratsaldeko ekitaldien txanda helduko da. Arratsaldea ere goiza bezain bizia izango da. Hasteko, 17:00etan, herritarren trebetasuna proban jarriko duen proba izango da: herriko toka txapelketa, alegia. Nor ote da herritarrik abilena?

Manuel Etxebeste eta Etxetxoren behorren arteko lehiak jende ugari erakarriko du, gaueko 22:00etan. Behorrek 700 kiloko harria eraman beharko dute arrastaka.

Demak gustuko ez dituenak



KOLDO ALDUNTZIN

Aizkolarien ondoren, Goenatxo harri-jasotzaileen erakustaldia ikusteko aukera izango da gaur, eguerdiko 13:30etik aurrera.

EGITARAUA

GAUR

11:00: Meza. Gero hamaiketakoa.

12:00: Esku-pilota partidak: Baez anaiak Aranburu-Goikoetxearen aurka.

13:30: Aizkolariak: Joxe Etxebeste-Anjel Altuna Jose Mari Olasagasti-Joseba Etxebesteren aurka. Goenatxo harri-jasotzailea ere arituko da.

17:00: Herriko Toka txapelketa.

20:00: Maimur antzerki taldearen emanaldia.

22:00: Zaldi dema (700 kiloko harriarekin). Manuel Etxebesteren behorra Etxetxoren behorren aurka.

00:00: Dantzaldia Trakets taldearekin.

BIHAR

Goizaldera baratxuri zopa egingo da.

12:30: Haurren trikitixa.

17:00: Aretu futbol txapelketako finalak egingo dira.

19:00: Pintxo dastaketa. Ekitaldian parte hartuko duten tabernak: Txistu, Etxenagusi, Mendizorrotz, Buena Vista, Akelarre, Leku Eder eta Iturrieta Berrieta. Sagardo dastaketa ere izango da: Elutxeta, Barkaiztegi, Eizmendi...

20:00: Herri kirolak Igeldo eta Antigüaren artean.

20:30: Bertsolarien saioa: Sustrai Kolina, Amets Arzallus, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Gai-jartzailea: Alex Aisa.

23:00: Dantzaldia Laiotz taldearekin.

UZTAILAK 2, ASTEARTEA

SANTA IXABEL EGUNA

19:00: Herri poteoa.

20:00: Txinga txapelketa herrikoia.

22:00: Idi dema: Jose Mari Olasagastiren idiak Jose Luis Argoterren idien aurka.

23:30: Trikitixa Etxabe anaien aurka.

00:00: Auresku herrikoia.



GAIZKA IROZ

Arzallus, Kolina, Egaña eta Lizasoren bertso saioa izango da bihar.

Ekaiz
TABERNA • ERRETEGIA
Especialitatea:
**HARAGIA
ETA ARRAIA
PARRILLAN**
ONDO PASA JAIK!
Aita Orkolaga Pasealekua, 131
IGELDO 20008 (Donostia)
© 943 21 20 24 - 943 21 73 49

**LEKUEDER. TABERNA
HOTELA**
*Ondo pasa
festak!!*
CRISTOBAL BALENCIAGA, 2
(IGELDO) - 20008 DONOSTIA
TEL.: 943 21 09 64 - 943 21 01 07

BUENA - VISTA
Taberna - Jatetxea - Ostetua
• Euskal Sukaldaritza
• Karta zerbitzua
• Ezkontzak eta banketeak
Balentziaga pasalekua, 42
(Igeldo errepidea)
Tel.: 943 21 06 00 - 943 21 06 01 DONOSTIA